

LEE-GUITRANS-EZF/M.U. akordioa

2007/08/05

LEE, GUITRANS eta MONDRAGON UNIBERTSITATEko EZFren arteko akordioa sinatu zen Donostian abenduaren 14an. Akordioaren helburua hiru erakundeek *Berrikuntza-, Prestakuntza- eta Komunikazio-arloan* zerbitzuak elkarrekin sustatzea da. Garraio eta Logistika sektoreari, Gipuzkoako eragin-eremuaren baitan, balio erantsi moduan eginiko ekarpena litzateke hori.



Akordio horrekin lortu nahi da:

- *Unibertsitatearen eta Enpresaren arteko lankidetzeta eta komunikazioa sustatzea*
- *Logistika- eta garraio-sektore osoari (gidariak, zuzendariak, administrariak eta abar) kalitatezko prestakuntza eskaintzea Gipuzkoako Lurralde Historiko osoan.*
- *Erakundeen laguntza bilatzea aipatutako lehenengo helburua lortzeko.*
- *Enpresen eta sektoreko profesionalen artean berrikuntza eta ezagutzaren kudeaketa sustatzea.*
- *IVL-LEE, EZF-MU eta GUITRANSen baliabide erabilgarriak elkarrekin optimizatzea akordioaren objektu diren jardueretan beren helburu zehatzak lortzeko.*
- *Kudeaketa-teknologia berrien erabilera sustatzea logistika- eta garraio-arloko teknologien garapenean.*

Akordio horren arabera, hiru erakundeek aipatutako jarduerak planifikatu, antolatu, zabaldu, sustatu eta abian jarriko dituzte logistika- eta garraio-arloan. Horretarako, aurtengo azken hiruhilekoan guztien adostasunez ezarriko den programaz eta zehaztatutako ekintzez baliatuko dira.

Akordioa **Ignacio Cepeda Alejos jaunak** (Guitranseko lehendakaria), **Iñigo Palomino Zubiaure jaunak** (IVL-LEEko lehendakaria) eta **Lander Beloki Mendizabal jaunak** (EZH-MUko dekanok) sinatu dute.